

Nafarroa Karria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko urriaren 20a / VI. urtea / 201. zenbakia

1989. urtean abiatu zen Belate mendatea saihestuko zuen errepede berriaren proiektua. Lehen lanak, ordea, 1993an hasi ziren. Urte hartan, proiektuaren helburu nagusia den Belateko tunela —Nafarroako luzeena 2.889 metroekin— egiten hasi ziren. Oraingoz Zozaiako bidegurutzeraino aile-

Belateren itxuraldaketa

gatzen den errepede berria datorren urtearen bukaeran amaitzea espero dute Nafarroako Gobernuko arduradunek. Hurrengo urtean, ziu- rrenik, Donezteberaino luzatuko dute errepede berria. Iruñea eta Doneztebe bitarteko bidea egiteko 25 minutu gutxiago beharko dituzte gidariek errepede berriari esker.



Marin errekekkoa da errepede berriko bidezubirik handiena.

OSKAR MONTERO

Xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



EHUn hasi dira klaseak baina gaizki beti bezala. Psikologiako fakultatean arazoak bertzerik ez ditugu. Alde batetik, irakaslego falta, nola ez. Lehenengo mailarako ezik, bertze mailetarako zenbat irakasle beharko genituen iaztik ederki bazekiten, baina kurtsoa hasi eta oraindik zenbait ikasgaitan irakaslerik ez. Nola da posible? Bertzalde, euskal adarreko ikasgai batzuk gazteleraz eman behar ditugu. Matrikula bertze guztiek bezala ordaindu dugun arren ez dute betetzen eskeintzen digutena, kurtsoa euskaraz izango dugula alegia. Egia erran, hauek biak ohiko arazo bihurtu zaizkit institutuan hasi nintzenetik eta okerrera da, hauen

aintzinean pasibo gelditzen ikasi dugula, inmunizaturik gaudede.

Poliki-poliki institututik unibertsitaterako pausuan hauezag gain bertze arazo berri batzuekin topo egin dut: klasean tokirik ez izatea, matrikula garaia kaos bat izatea, are gehiago beka eskatzen dugunontzat, eta aurten hautazko ikasgaien istilua. Hau horrela beldur naiz ez ote dugun erantzuteko gaitasuna galduko, bakarrik behin eta berriz beraiekin topo

egiten dugulako, ohiko bihurtu zaizkigulako. Lehengo egunean errate baterako, gaztelerazko ikasleekin batera gazteleraz eman behar dugun ikasgai batera hirugarren mailako ikasle gehienak joan ginen, 90 pertsona sartzen diren gela batean 150 edo gehiago elkartu ginen. Irakasleak ikusi zuen batzuk txutik geundela, bertzeak lurtean jarrita baina halere klasea ematen hasi zen eta mahaia eta aulkia harpatu zutenak ere apunteak har-

tzen hasi ziren. Hasiera batean 'sobran' geundenak kanpora atera ginen harriturik baina gero klasea moztu genuen barnean zeuden ikasle eta irakasleari hura onartezina zela erranez. Horrelakoetan ezin da klase eman, denok baitugu gure mahai eta aulkia izateko eskubidea. Exerita zegoen ikasle batek «es vuestro problema» erran zigun. Nola erran daiteke hori? Egun hartan gu gelditu ginen tokirik gabe baina hurrengo batean bera geldi daiteke kanpoan eta orduan norena izango da arazoa?

Arazo hauek guztiak gaizki antolatutako unibertsitate batean dira, inola ere ez ikasleena eta beraien aintzinean ezin gara inoiz ixilik gelditu.

Arazoak unibertsitatean

GUERE AUKERAK

ERAKUSKETAK



Doneztebeko Jubilatuen etxean, Jose Miguel Goienaren margoak daude ikusgai azaroaren 12ra bitartean.

Iruñeko Nafarroako Aurrezki Kutxak Carlos III Etorbidean duen Carlos III aretoan Maria Otamendiren lanak ikusteko aukera dago. Erakusketa azaroaren 6ra arte dago zabalik.

Elizondoko Arizkunenea aretoan zazpi artista euskaldunen margoak daude ikusgai. 'Baztandik meategietara' izenburupean azaroaren 10era bitartean dago zabalik lane-gunetan 19.00etatik 21.00etara.

KONTZERTUAK



Zizur Nagusiko Kultur Etxean 'Los ministriles del rey Teobaldo' taldeak kontzertu instrumentala eskainiko du gaur. Emanaldia gaueko 10etan da eta sarrera 400 pezetatakoa da.

Garesen Def Con Dos taldeak joko du bihar. Kontzertua gaueko 11etan izango da Gares salan.

Chiapasekin elkartasuna adierazteko jaialdia dago bihar Beriaingo frontoian arratsko 8etan. Tahures Zurdos, Ritual de lo habitual, 51 Street blues, Letal Fun, Grey Souls eta Liver taldeak joko dute. Sarrera 1.000 pezetatakoa da.

Tiebas-Muru Artederretan Ave Maria akordeoi orkestrak kontzertua eskainiko du igande honetan. Emanaldia arratsaldeko 6etan izango da herriko elkartearen.

ANTZERKIA



Donamarian Udazkeneko Bira 95 egitarauen barruan Iruña Antzerki Tipiak 'Bazter utzitako panpinaren istorioa' eskainiko du bihar. Emanaldia herriko frontoian izanen da gaueko 9etan.

Labaiengo plazan Udazkeneko Bira 95eko ekitaldien barruan ere Kollins Clown taldeak 'Bikingoak' lana eskainiko du bihar. Antzezlanak 18.00etan izango dira herriko plazan.

Zizur Nagusian Iluna teatro taldeak 'Esquina peligrosa' lana antzeztuko du Kultur Etxean. Emanaldia bihar izanen da arratsko 8etan.

BERTSO SAIOAK



Beran, Gure Txokoa elkartearen bertso afaria izango da bihar gaueko 9etan. Bertso kantari Inaki Murua eta Sebastian Lizaso ariko dira.

Iruñeko V. Bertsoaren egitarauaren baitan antolatutako ekitaldien barruan, urriak 24an, astearte, bertso jaialdia izanen da 19.30etan San Frantzisko eskolan. Unai Iturriaga, Jexus Mari Irazu, Ainhoa Agirreazaldegia, Estitxu Fernandez, Inigo Olaetxea eta Xabier Legarreta bertsolariak Unai Agirrek jarritako gaiak kantatuko dituzte.

NAFAR KRONIKA

ALBERTO BARANDIARAN

Tourra etxean

Iruñean eta Hendaian izango dute bukaera, beraz, Tourreko bi etapak. Hiriburukoa, gogorrenetakoa, Pirinioetako erakargarriena. Pentsatze hutsarekin txiribitak

aldapa gogorrik, bizikleta gainean jakina. Uste nuen Euskal Herrian ez zegoela antzekorik, Pirinioetako malda horiek ez nituelako ezagutzen jakina, eta segur nengoen 'hors de

zepzio gutxi jaso ditut nik. Hainbestetan igota aldapa horiek eta hirugarren mailakoa besterik ez zela esan! Gaizki neurtua behar zuen, derrigor. Orain, Larrañeri ematen



ateratzeko egunak, zaletuek gertutik ikusi ahal izango dugu eta *la grande boucle*.

Gogoan dut duela bizpahiru urteko Tourra Donostian amaituko zela jakin nuenean berehala pentsatu nuela Jaizkibeli kategoriaz kanpoko maila jarriko ote zioten. Nere-tako ez da Jaizkibel bezain

catégorie mitikoa —Tourmalet, Alpe D'Huez edo Puy de Dome mendateek bakarrik duten hori— ezarriko ziotela. Bada, ez 'hors de catégorie', ez lehen maila. Ezta, gogortzen dudanez, bigarrena ere. Hirugarren mailakoa zela uste izan zuten frantximent halakoek! Hori bezainbesteko de-

dioten puntuazioari so nago, arretatsu. Luzea eta gogorra da Zuberoatik, eta ziur nago Gipuzkoako mendateak baino tratamendu hobea izango duela. Ez dakit nik Jaizkibel baino gogorragoa den, baina, tira, 'hors de catégorie' bat izango dugu bada Euskal Herrian? Mendateen artean, diot.

ASTEKO PERTSONAIAK



Jose Irigibel
CDNko senadorea

Nafarroako senadore autonomikoa albiste bihurtu zen kargua hartu neta ordu gutxitara, berak izan baitzuen azken hitza Espainiako Senatuko GALi buruzko ikerketa batzordea sortzeko bozketa egin zenean. Senatuko batzordea eratzearen aldekoak eta kontrakoak parekatuta zeuden (127 boto), eta Jose Irigibelen (CDNkoa) baiezkoak aurrera ateratu zuten batzordea sortzeko proposamena. Bere alderdiaren iritzia ezezik, Nafarroako Parlamentuko gainerako talde politikoena ere aintzat hartu zuen Convergencia de Demócratas Navarros alderdiko senadoreak, bera «Foru Parlamentu guztiaren ordezkari» delakoan.




Juanjo Olasagarre
Idazlea

Juanjo Olasagarrek Central Hispano bankuak antolatzen duen 'Imajina Ezazu Euskadi' VIII. lehiaketako euskarazko poesia saria irabazi du 'Bizilegearen Legeak' lanarekin. Euskaraz idatzitako poesien ataleko bigarren saria ere beste idazle nafar batek eskuratu du, Eduardo Gil Bera tuterarrak hain zuzen, 'Fundazio' izenburuko lanagatik. Olasagarrek duela lau urte plazaratu zuen bere orain arteko liburu bakarra, 'Gauasak' poemarioa. Idazle arbizuarrak WYSTAN HUGH AUDEN poeta britaniarraren poemarik onetsuenen euskarazko bertsoak biltzen zituen liburua argitaratu zuen iaz eta orain saritutako lana ere argitara ateratzeko parada izango du —nahiz eta agian jatorrizko izenburua aldatu—.

AHAZTU GABE!

ZINEMA ZIKLOA



Nafarroako Museoak Alemaniako zine mutuari ziklo berezia eskainiko dio heldu den astelehenean ostiralera bitartean. Alemaniako mende hasierako zinema Europako garrantzitsuenetakoa izan da eta Lubistch komedia generoan, Lang eta Kobe terrorezkoan eta Murnau dokumentaletan, zinemagile ospetsuak izan ziren. Egitarauari jarraituz, astelehenean 'Antologia del cine mudo aleman I, 1919-1929' eskainiko da eta asteartean dokumental berberaren bigarren zatia emango da. Dokumentalaren ostean, E. Lubistch-en 'La princesa de las ostras' pelikula ikusteko aukera dago. Asteazkenean, berriz L. Jessner zinemagilearen 'La escalera de servicio' lana pantailaratuko da. Ostegunean aldiz, F.W. Murnauaren 'Fausto' pelikula ikusteko aukera dago eta azken egunean, ostirala J. Mayren 'Asfalto' filmea aurkeztuko da. Aipatu emanaldi guztiak dohainik dira eta arratsaldeko 19.30etatik aitzina izango dira.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenean ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazkenean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



HERRIZ BERRI



Lesaka

Iruñea

Dantzari Txikien VIII. Eguna

LESAKA

Euskal Herri osoko taldeak bilduko dituen Dantzari Txikien VIII. Eguna ospatuko da aste-buru honetan Lesakan, herriko Irain Dantza Taldeak antolatuta. Euskal taldeak ez ezik Bartzelonako Esbart del Centre Moral i Instructiu de Gracia dantza taldea ere izango da Bortzirietako herrian.

Urtetik urtera sendotasuna hartzen duen ekitaldia dugu hau, antolatzailer taldeak eginiko lanari esker. Lesakako Ikastetxe Publikoko gurasoen ekimenari esker sortua, egun 90 dantzari inguru dauzka, denak 4 eta 27 urte bitartekoak. Oholtza gainean daramatzen urte hauetan guztietan herri askotan izan da taldea, eta ez bakarrik Nafarroan. Euskal Herrian barna herri gehienetan ibiliak dira, eta Zaragozan ere izan dira inoiz, Pilarko Ama Birjinaren omenezko jailetan. Urtean zehar, bestalde, zenbait ekitaldi antolatu izan ditu taldeak, horien artean garrantzitsuena bihar hasiko den Dantzari Txikien Eguna.

Aurtengo egitaraua bihar, larunbata, hasiko da, Esbart del Centre Moral i Instructiu de Gracia taldearen dantzaldiarekin, 19.30etan izango da, udal pilotalekuan, eta sarrera 300 pezetan izango da helduendako eta ehun pezeta haurrentako. Aterako den diruarekin dantzaldia



Lesakako Irain dantza taldea.

bera ordainduko da.

Igandean, hilak 22, 10.30etan hasiko dira ekitaldiak, musika talde batzuek egingo dituzten dianekin. Hamaiketean, Bittiria kalearen ondoko parkean hamaiketako eskainiko zaie Euskal Herri osotik etorriko diren taldeetako partaideei, eta ondotik hortik Enparantza Zaharerraino desfilea izango da. Hantxe egingo diete Irain Dantza Taldekoek bisitariei omenaldia. Ondoren, Bortzirietako Bertsolari Eskola-koek zenbait bertso eskainiko dizkiete heldu berriei, eta aurre-

kua dantzatuko dute.

Harreraren ondoren, dantza taldeak herriko karraketan barna banatuko dira bakoitzak bere dantzak eskaintzeko, eta 12.30etan Kataluniako taldeak bere dantzen selekzio bat egingo du Plaza Zaharrean. Han bilduko dira talde guztiak segidan, eta bazkaltzeko dantzariak herriko familien artean banatuko dira. Musikariek eta arduradunek herriko jatetxe eta elkarteetan bazkalduko dute.

Arratsaldean ere ez da ikuskinunik faltako. Bazkaldu ondoren

erraldoien eta buruhandien konpartaren segizioa aterakoa da kopbentutik, eta arratsaldeko bost t'erdietan dantza talde guztien desfilea izango da pilotalekuraino, eta han egingo da dantza jaialdia. Bukatzeko, euskal musika izango da plazan, herritar guztiak parte har dezaten.

Egun hauetan guztietan antolatzailerak boletoko batzuk paratu dituzte salgai festaren gastuak nolabait ordaintzeko, eta jaialdiaren egun berean herriko jate-txe batean bi pertsonarentzako afari bat zozketatuko dute.

Altsasu

Lehen bertso-paper lehiaketa antolatu du Kima taldeak

ALTSASU

Altsasuko Kima taldeak lehen bertso-paper lehiaketarako deia egin du oraindik orain, eta bi mailatan sailkatu ditu lanak, adinaren arabera: sari bat izango da 18 urtetik gorakoendako, eta beste bat hortik behar-koendako. Hau da inguruan antolatu duten mota honetako lehen lehiaketa.

Kima taldeak paratutako baldintzak ondorengoak dira. Gaia librea izango da, eta euskaraz idatzitako obra originalak eta inoiz argitaratu edo kantatu gabekoak bakarrik aurkez daitezke. Hemezortzi urtetik gorako mailaren barruan aurkeztuko diren lanak 10-14 bertso bitarte izango dira luze, eta hortik behar-koak 8 eta 12 bertso bitarte. Bertso guztiak izen batekin sinatuko dira. Horiekin batera kartazal itxi bat aurkeztuko da,

azalean izen bera azalduz eta barnean egilearen datuak eta telefono zenbakia.

Bertso lanak 1995eko azaroaren 8a baino lehen bidaliko dira Altsasuko udaletxera —Gartzia Ximenez, 26. 31800 Altsasu; telefonoa: 56 21 61— 'Kima lehiaketa' ondo zehaztuz. Lehen saria 30.000 pezetakoa (1.200 libera) izango da helduendako mailan, eta 15.000 pezetakoa (600 libera) 18 urtetik behar-koendakoan. Bigarren sariak 20.000 pezetakoa (800 libera) eta 10.000 pezetakoa (400 libera) izango dira, hurrenez hurren.

Epaimahaia Kima taldeak izendatutako zenbait pertsonak osatuko dute eta behin-betiko erabakia Altsasuko Gure Etxean azaroaren 24an egingen den ekitaldian jakinaraziko dute. Saritutako lan guztiak talde honen esku geratuko dira.

Iruñea

Euskarazko sormen tailerretan izena eman daiteke oraindik

IRUÑEA

Iruñeko Udalak antolatu dituen 'Sormen tailerrak euskaraz' ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago oraindik, gaur arte luzatu baita deialdia. Hamaika dira aurtun eskainiko diren tailerrak, eta parte hartu ahal izateko 14 urtetik gorakoa izatea da baldintza bakarra.

Ikastaroek apirilaren 25era arte iraungo dute eta izena emateko Iruñeko Gazteriaren Etxera hots egin behar da, arratsaldeko 6.00etatik 9.00ak bitarte. Bi motakoak izango dira tailerrak, saioen arabera. Aste saio batekoak —bost— 5.000 pezeta kostako dira, eta astean bi saiotakoak —sei— 8.000.

Esan bezala hamaika dira aurtun Iruñeko Udalak eskainiko dituen ikastaroak: Argazkigintza, pintura, modelatu artistikoa, ehungintza, masajea,

txalaparta, sukaldaritza, yoga, mantenimenduko gimnasia, gorputz adierazpeneko jokoak eta joko dramatikoak, eta euskal dantzak. Tailer gehienak Gazteriaren Etxean izango dira, sukaldaritza, mantenimenduko gimnasia, euskal dantzak eta gorputz adierazpeneko jokoak izan ezik. Sukaldaritzakoak, bistan denez, elkarte behar zuen, eta Los del Bronce elkarteak Jarauta kalean duen egoitzan izango da. Luxia Goñi sukaldari eta bertsolari apartak eskainiko du. Mantenimenduko gimnasia Iturruma Gizarte eta Kultur Etxean izango da, Aitziber Eskubiren eskutik, eta gorputz adierazpena landuko du Matxin antzerki-gizona eta mimoak Nabarria Gizarte eta Kultur Etxean. Euskal dantzak, berriz, Enrique Dominguezek emango du Hegoalde Udal Ikastolako gimnasioan.

Mendiko medikuntza eta sorospen III. ikastaro teorikoa hasiko da asteazkenean

IRUÑEA

Mendiko medikuntza eta sorospen III. ikastaro teorikoa izango da heldu den astetik aurrera Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Nafarroako Kirol Elkarteak, Mendi eta Eskalada Kirolen Napar Federakundeak, Nafarroako Goi Mendi Eskola eta Kirol eta Gazteriaren Institutuak antolatuta. Istripuen jatorria, lehen laguntzak, elikadura, eta beste hainbeste gai jorratuko dira hamar egunetan.

Oinarritzat hartuz mendizale-tasunaren oinarritzko hiru zutabeak formazioa, hezkuntza eta informazioa direla, ikastaroaren bidez mendizaleak buruan gorputzen dituen egitasmoak ongi burutzeko aukera eman nahi da, funtsezko joko arauak ezagut ditzan. Hila honen 25ean hasiko da aipatu ikastaroa eta azaroaren 24an bukatu. Tarte horretan mendiko medikuntzari buruzko hainbat hitzaldi entzun eta gero, azaroaren 28an 'Mendiku istripun aurrikustea' izeneko solasaldian parte hartzeko aukera izanen dute partehartzaileak.

Barañain

Ekitaldi ugari antolatu ditu Kultur Batzordeak

IRUÑEA

'Latinoamerikari begirada bat' izenburuko erakusketaren barruan, hainbat ekitaldi antolatu ditu Barañaingo Kultur Batzordeak datozen egunetarako. Bi-har, arratsaldeko zortzietan, Chevere taldearen emanaldia izanen da Udaletxeko plazan. Eguraldiak laguntzen ez badu, Udaletxeko aretoan izanen da. Chevere taldearen eskutik, me-rengue, salsa edo boleroak eza-gunenak entzuteko aukera izanen dute Barañaingo biztanleak. Chevere taldeko kideek, besteak beste, Celia Cruz edo Caco Senante abeslari ezagunekin egin dute lan.

Honetaz gain, TCM El Lago taldeak antolatuta ere, bideo-foruma egonen da Kaioa ostatuan datorren ostegunetan, gaueko hamarretatik aurrera. Halaber, aste honetan bezala eta 'Latinoamerikari begirada bat' erakusketaren egitarauaren barruan, dantza ikastaroa egingo da datorren aste osoan ere. 'Amerika Latina bere artisauen bitartez' erakusketa ere, Kultur Etxean izanen da ikusgai hila honen bukaerara bitartean.

Egun gutxi barru —hil honen amaieran, ziurrenik— zabalduko dituzte Belateko errepide berriaren bi zati, Arraizko bentaren eta Belateko tuneleko sarreraren artekoa eta Berroeta eta Zozaiaiko bidegurutzeen artekoa, alegia. Errepide berriaren gainontzeko zatiak, datorren urtearen bukaera aldera zabalduko dituzte. 1993. urteko uztailean hasi ziren lanak eta orduz geroztik erabat aldatu da Belateko paisaia. Errepide berriak atzean utziko ditu mendatearen bihurtuak.

Errepide berriaren zain

EDURNE ELIZONDO / IRUÑA

Belateko mendatea Iruñerriaren eta Nafarroako iparraldeko herrien arteko oztopo nagusia izan da betidanik. Nafarroako Gobernuaren asmoa, hortaz, Belateko mendatea saihestuko duen errepide berria egitea izan da aspaldidanik. Asmo hau 1989. urtean hasi zen gauzatzeko bidean, urte hartan ekin baitziren Nafarroako Gobernu Bideetako Zerbitzuak eskuetan zuten proiektuaren bideragarritasuna aztertzeari. Garai hartan jada, asmo zehatza zuten Bideetako Zerbitzuak: Belateko mendatea zeharkatuko zuten tunela egitea, hain zuzen ere. Belateko tunela Nafarroako tunelik luzeena izanen da, ia hiru kilometroko luzerarekin. Horrekin batera, beste lau zati osatzen dute Belateko obren ibilbidea. Horietako bi, hain zuzen ere —Arraizko Bentetik Belateko tuneleko sarreraraino doana, eta Berroeta bidegurutzetik Zozaiaiko bidegurutzeraino doana—, hil honen bukaeran bertan edo azaroaren lehen egunetan, asko jota, zabalduko dituzte. Belateko eta Almandozko tunelak eta bien arteko errepide zatia, berriz, datorren urtearen amaiera aldera zabalduko dituzte ziurrenik. Errepide berriari esker, 25 minutu inguru aurreratuko dituzte gidariak Iruña eta Doneztebe bitartean.

Jesus Gonzalez Nafarroako Gobernu Bideetako Zerbitzuko zuzendariak Belateko proiektuaren xehetasunak argitu eta azken hila beteetan egindako lanaren berri eman digu. Aipatu duenez, 1989. urtean bete zuten lehen urratsa Belateko errepide berriak. Urte hartan, hain zuzen ere, proiektuaren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa eta ingurugiroan izango lukeen kaltea aztertzeko ikerketa jarri zuten martxan.

Proiektua bideragarria zela ziurtatuta, errepide berriaren ibilbidea zehazteko zenbait alternatiba proposatu eta aztertu zituzten lehenik eta behin Bideetako Zerbitzuko arduradunek. Hamar bide aztertu ondoren, lau alternatiba aukeratu zituzten, horien artean behin-betiko bidea hautatzeko asmoz. Belate mendebaldeko edo Belate ekialdeko deiturikoen artean aukeratu behar izan zuten lehen bidea. «Aukeraketa erraza izan


zen, argi baitziren ekialdeko bidearen abantailak, motzagoa eta merkeagoa baita, eta ingurugiroari ere kalte gutxiago egiten dio», dio Gonzalezek. Bigarren aukeraketa, berriz, Zeberia edo Marin erreken artean hartu beharra zegoen. «Hau da, Belate mendebalde eta ekialde batzen diren puntura ailegatuta, bidea Zeberia erreka jaitsiz, edo, aldiiz, Marin erreka jaitsiz egin behar genuen zen erabaki beharrekoa». Batzen eta bestearen abantailak, kasu honetan, parekatuta zeuden. Zeberia erreka bidea, alde batetik, kilometro bat motzagoa zen eta ez zuen beste tunel baten beharrik. Halaber, loturak behar ez zirenez, azkarragoa izan litezateke eta bere gaitasuna ere handiagoa zuen. Zeberia erreka bidean zegoen aldarrik handiak, bestalde, %7ko desnibela zuen. Marin erreka bidean, ordea, hori baino desnibel apur bat handiagoa zuen aldarrik zenbait puntutan. Marin errekan, gainera, erran bezala, beste tunel bat egin beharra zegoen, baina trukean Zeberia erreka bidean baino zubibide gutxiago behar ziren. Kalte ekologikoa, gainera, askoz txikiagoa da Marin erreka bidean, lehendik egindako bidea baitu oinarri —egungo errepidea, alegia—. Bestalde, Zeberia erreka, besteak beste, Berroeta, Almandoz eta Ziga herriak bazterrean uzten dituela ere kontuan hartu behar da, ez, ordea, Marin erreka bideak. Azkenik, beraz, Marin erreka alternatiba aukeratu zuten Bideetako Zerbitzuko teknikariek.

Egin beharreko ibilbidea aukeratu ondoren, 1990. urteko ekainean Belateko obren marra-keta proiektuari ekin zion Bideetako Zerbitzuko Zerbitzuak, Arraizko Benten eta Donezteberen bitartean, hain zuzen ere. Obren erailkuntza proiektua ere adjudikatu zuten urte berean, baina Zozaiaiko bidegurutzeraino baino ez. Izan ere, nahiz eta errepide berriaren proiektua Donezteberaino ailegatu, oraingo Zozaiaiko bidegurutzeraino baino ez dute egingo. Bertatik Donezteberainoko zatiaren proiektua datorren urtean zehaztuko dute eta «dena ongi badao, 1997an hasiko dira lanak», aipatu du Bideetako Zerbitzuko zuzendariak. Mugairin, hain zuzen ere, 300 metroko tunela egingen dute eta Nabarte eta

Doneztebe bidegurutzea, aldiiz, bazterrean utziko dituzte errepide berriak. Azkenik, 1990. urtean ere, urrian, aukeraturako alternatibaren justifikazioa ailegatu zen. Bitarteko guztiak bete ondoren, 1993. urteko uztailean hasi ziren lehen lanak Belateko mendatean, Belateko tunelaren hain zuzen ere. Gainontzeko lau zatietan urtebetik beranduago hasi ziren lanak, 1994. urteko uztailean, hain zuzen.



Belateko tunelaren irteera. Eskuinean, Belateko eta Almandozko tunelaren bitarteko zatia, eta Almandozko tunelaren irteera. Ezkerrean, lanak Almandozko tunelaren barruan eta hemen behean, Almandozko tunelaren zati eta Marin erreka zubia. Beherago, Almandozko lurren mugimendua. OSKAR MONTERO





La hiru kilometroko luzerarekin —2.889 metro—, Nafarroako tunelik luzeena izanen da Belatekoa.

Iruña eta Doneztebe bitartean, 25 minutu inguru aurreratuko dituzte gidariak errepide berriari esker.


BI TUNEL ETA BI ZUBIBIDE Osotara, 15.489 metroko tartean ari dira lanean errepide berria egin asmoz. Hamabost kilometro hauek bost zatitan banatu dituzte eta horietako bakoitzean, enpresa edo enpresa multzo ezberdina ari da lanean. Belateko tunela edo 'zero zatia' izenekoa da egiten hasi ziren lehenengoa, 1993ko uztailean. Zati honen luzera 4.000 metrokoa da eta horietako 2.889 tunelarenak dira. Gainontzekoak, tunelaren iparraldeko eta hegoaldeko sarrerek hartzen dituzte. Belateko tunela behin behineko enpresa multzo bat ari da egiten eta horren barruan, Auxini, Lain eta Posusa enpresak daude. Tunela egiteko aukeratu duten metodoa sekzio erdikoa deiturikoa da. Hau da, oraingoz, tunelaren goiko zatia baino ez dute zulatzen eta behin tunelaren alde biak elkarrekin eta gero, beheko zatia zulatuko dute. 150 metro inguru zulatu behar dituzte oraindik alde biak elkartu ahal izateko. Almandozko

tunela ere, metodo bera jarraituz egiten ari dira. Belateko tunela baino lehen, Arraizko bentak eta tunelaren sarrera bitartean Berroeta eta Zozaiaiko bidegurutzeen arteko zatiarekin batera, egun gutxi barru, hil honen beraren bidegurutzeen arteko zati egiten dute. 3.800 metroko luzera du lehen zati honek eta oro har, egungo errepidearen egokitzapena egin dute, beste karril bat gehituz. Padenasa enpresa da zati honen egilea eta gainontzekoak bezala —zero zatia ezik— 1994ko uztailean hasi ziren egiten. Bigarren zatia Almandozko tunelarena da. Tunelaz gain, hala ere, alde bietako sarrerak ere gehitu behar zaizkio zati honi. Osotara 2.840 metro da luzera eta horietako 1.350 tunela



renak dira. Behin-behineko enpresa multzo bat ari da zati hau egiten ere, Obras Subterranas, S.A. eta Alvargonzalez Contratas enpresak osatua, hain zuzen ere. Zati honen ondoren hirugarrena dator eta zati hau, Almandozko saihesbide berria eta Marin eta Berroeta zubibideak osatzen dute. Maringo zubibidea da luzeena, 350 metrorekin. Altuerari dagokionez, halaber, 62 metro neurtzen du zubibide honek punturik gorenean. Berroeta-koak, berriz, 128 metro ditu. Zati honen luzera, osotara, 2.260 metrokoa da eta egilea, berriz, Mariezkurrena S.L. enpresa. Berroeta eta Zozaiaiko bidegurutzeen arteko zatia da laugarrena eta, azkena eta lehenengoa bezala, egungo errepidearen egokitzapena da, karril bat gehituz. Zati honek 2.229 metroko

luzera du eta Baztan izeneko behin behineko enpresa multzoa da egilea. Urbanizaciones Iruña, Canteras de Alaiz, Biurrun, Azpiroz y Saralegi eta Padenasa dira enpresa multzo honetako kide. Belateko mendatearen paisaia asko aldatu da lanak hasi zireneko hilabete hauetan, baina, Jesus Gonzalezek hitzetan, «behar-beharrezkoa da hori hau bezalako proiektu batean». Hala ere, Belateko errepide berriaren proiektuak bere baitan hartzen dituen nuerri zuzentzaileak azpimarratzen ditu Bideetako Zerbitzuko zuzendariak. «Izan ere, indarrean dagoen Faunaren Babeserako Legea dela eta, halako neurriak hartu eta Ingurugiro Departamentuaren oniritzia izan behar dugu». Besteak beste, mendoitzak moldatu eta zahartzak landatuko dituzte.



Kritikontzi

Joxe Aiape, sola eta bizia

XANTI BEGIRISTAIN

G abon! Txutxin al zara?
—Ez, Joxe naiz, Xanti, baina segituan esango diot jartzeko, eh!

Honelaxe mintzatu ginen gutxi gora behera duela aste bat eskas telefonoz, eta a zer nolako alde handik egun gutxi batzutura! Izan ere, astelehen gauean (95-X-16), Txutxinek telefonoz deitu zidan gutziz atsekabeturik esanez bezperan hil egin zinela auto istripu ergel batean. Txutxinek serenitateari ahal zuen moduan eutsiz zure ehorzketa garaian txistua jotzeko eskatu zidan, familiak horrelaxe nahi zuelako. Nik, bihotza jauzika nuelarik, baietz erantzun nion, zer edo zer joko nuela, berak horixe eskatu baitzidan, alegia, nik nahi nuena interpretatzeko.

Eta berehalaxe hasi zitzaidan burura ideia zaparrada bat etortzen, esate baterako, zeinen hauskorra den gure bizitza honi eusten dion haria, nola alda daitezkeen gauzak unetxo bakar batean (orain bizirik, orain, aldiz, hilik), zein ankerra den bizia itxuraz behintzat, zer nolako gauza eta izaki txiki, xume eta inpotenteak garen eta abar, eta abar. Baina aldi berean konturatu nintzen hauxe dugula errealitate bakar eta latza; ez dago besterik. Horren aurka ezer gutxi egin genezake. Horrela izan da orain arte eta hemendik aurrera ere horrelaxe izaten jarraituko du, ziurrenik. Hauxe da ezagutzen dugun bizimodu bakarra, eta aurrera egitea baino beste konponbide hobea ez dagoelakoan nago: edo bizitzera jarraitzeko borrokatu edo bestela amore eman, etsi eta aspertx egin. Neronek lehenengo aukera hutatu nahi nuke.

Dena den, Joxe, ezin liteke esan samurra denik. Orain dela lau egun eskas bizirik zinen gure eta zure pertsona maiteenen artean eta orain, berriz, fisikoki behinik behin utzi gaituz edota norbaitek /zerbaitek urrutiarazi zaitu guregandik; nola eta gupil baten leherketa txoro dela bide. Eta gainera noiz? Ba, igande arratsaldean, gu Tuterako Nafarroa Oinez hain gustura genbiltzan birtartean; badakit zu ere arrotz pozik ibiliko zinatekeela joan izan bazina, baina...



Asteartean gauzak oso gaxkak izan ziren denentzat, batez ere Ixabel zure emazte-lagun sendo eta maitagarriarentzat, amarentzat, anai-arrebentzat eta hurbil samarretik pixka bat ezagutu zintugun gutzientzat. Giroa tentso eta atezua zen; are atezuagoa oraindik hilerrian zure gorpua Ama Lurraren sabelera berriro itzultzerakoan. Itzultze goiztiar honen zentzua asimilatzekeo nahikoa denborarik izan gabe hantxe aritu ginen egoera larri eta estu batean errealitatea onartu nahi izango ez bagenu bezala: ama tinko, Ixabel malkoei eutsi nahian gizatasun nabarmena erakutsiz eta aldi berean, arimaren bere ispiluan zurekiko maitasun handia mingoztasun eta saminez, serenitatez adieraziz. Gainerakoongan antzeko zerbait, ezdarri korapiloak, dardarak, hasperenak eta oinazeak. Aukeratu nizun doinua 'Argiaren begia' izan zen. Bai, badakit ez dela batere ezaguna ez eta apartekoa ere, baina nire sormen murrizaren emaitza da behinik behin eta nik, hain zuzen ere,

horixe eskaini nahi nizun bihotzetze, 'nire zatitxo' zen zertxobait.

Jende askok galdetzen dio bere buruari ea zein izan litekeen azalpena zurea bezalako kasu baten aurrean, ea zer zentzu izan lezakeen pertsona gazte baten bizitza puri-purian dagoenean eten egiteak. Nik ez dakit ongi baina neure burua lasaitu eta sosegatzeko pentsatu nahi dut bizitza hau bidaia edota azterketa bat bezalakoxea dela, hau da, ez duzu denborarik izan zure etsamin edo ibilaldia bukatzeko beren osotasunean baina egindakoa eta ibilitakoa ongi gauzatuak daude momentu horretaraino. Beraz, esan liteke azterketa erraz gaintu duzula. Hori garrantzitsua dela uste dut.

Zure bizitzaren lekukotzak erakusten digu gauza noble ugari egin duzula bizialdi ez osatu horretan eta guregan arrasto handia utzi duzu. Horregatik pozten gara zu inoiz ezagutu izanaz.

Beti arte Joxe!

Klasiko bitxi arront klasiko

Joxemiel Bidador

Sendabelar-liburuak

Ortzadarrek antolatu sendagintza herrikoari buruzko ihardunaldiak direla eta



Atzokoan hasiera zuten aurten 1995.ko Ortzadar talde iruñarrak antolatu kultura herrikoari buruzko ihardunaldiek herri sendagintza aukeran dute ikergai eta erakusgarri. Ez da guti XI. aldikoz horrelakorik ospatu ahal eta nahi izana, eta oraingo honetarako hautatu gaiak *Sukil* bildumaren ontze lanetan ihardun prestatzaileei sort dakiekeen zorotasuna sendatzea ote du helburu. Zeinek daki. Gaur arratsalderako prest duten egitarau zabalaren nolabait bero girotzen hasteko, hona hemen zenbait miriku euskaldunen lan batzuren aipamena, irakurlearen osagarri eta aipagarri.

Donostiako On Lorenzo Riesgo Montero Espinosaren moldiztegi, eta 1770. urtean, Josef Oianarte izeneko osagile donostiarrak ondu izenburu luzexka bateko lan interesgarri bat ageri zen, hau da, *Exposición parafrásica del primero de los aforismos de hipócrates y preceptos generales deducidos de él para médicos, cirujanos, enfermos, asistentes y obstetras sobre el modo de aplicar el agua bautismal*. Lanaren lehenbiziko heren batek morala du hizpide, abortoen bataioaz baitihardu, eta jarraian sendagintzaren munduan barna mugituz pertsona guzirik guzirik kritika latza badator: emaginak, medikuak botikariak, zirujanoak, herriz herri zebiltzan sendagile faltsuak —*«Idiotas, empíricos, hipócritas, embusteros, oprobio de la cirugía, y ruina del género humano, de su salud y de sus intereses»*—, eriak, hauen senideak, sendalari herrikoiak,

edota apezak —*«Sacerdotes que olvidados de su dignidad se meten en estos quehaceres lo que es cosa que espanta y no sabemos para cuando o para quienes guardan estos tales su teología moral»*—.

Donostiarra ere bazen Bizente Lardizabal sendagile jakintsua (1746-1814). Caracasko Erret Konpainia Gipuzkoarreko medikua eta Euskalerraren Adiskideen Elkarteko kidea. Ikerketa mordoska egin zituen, bai medikuntzaren alorrean bai kimika soilarenean ere. Esaterako, zenbait iturritako urak aztertu zituen, Gesalaga, Iturbieta edo Beteluakoak kasu, eta lortu emaitzekin *Memoria sobre la utilidad del chocolate para precaver las incomodidades que resultan del uso de las aguas minerales* izenburuko idazkia inprimarazi zuen 1778. urtean. Halarik ere, bere lanik eskergena marinelen osasunari buruzkoa egin zuena dugu, betiere aipatu Caracasko Erret Konpainiaren gerizapean burutuak. Bere kezkarik nagusietakoa eskorbutua nola desagertaraztea zen. Bazekien zenbait fruituen bitartez senda zitezela, baina itsasontzietan nekez gorde zitezkeen horrelakorik luzaro, eta orduan sagarzoren erabilera proposatu zuen zitriko arruntak ordezkatzeko. Hau dena bere 1769.ko *Consideraciones político médicas sobre la salud de los navegantes* eta 1772.ko *Consuelo de navegantes en los estrechos conflictos de falta de ensaladas y otros víveres frescos en las largas navegaciones* idazkietan azaldu zuen.



■ Nafarroako taldeko txapelketako maila nagusiko lehenengo jardunaldiko partida, 1995eko urriaren 7an jokatu.

Iñigo Ganuza (Iruñeko Oberena 'A'), 2.115 ELOkoa — **J. Luis Aginaga** (Iruñeko Oberena 'B'), 1.805 ELOkoa.

1.e4,c5; 2.Zc3,Zc6; 3.g3,g6; 4.Ag2,Ag7; 5.f4,d6; 6.d3,Gb8; 7.h3,e6; 8.Zf3,gZ-e7; 9.o-o-o-o; 10.Ae3,b5; 11.Gb1,b4; 12.Ze2,a5; 13.g4,f5; 14.Eh1,Aa6; 15.Zg5,Dd7; 16.g-f5,e-f5; 17.Ag1.

Alfilak peoia babesten zuen. Defentsa hori utzi izanak peoia galtzea ekarriko du.

17.....h6; 18.Zf3,e4; 19.e4,Ae2; 20.De2,Gf4; 21.Dc4 xa,Eh7; 22.bG-d1,Gf3.

Beltzek erasoko jokoa erakutsi dute, hau da, nola garaitzen diren partidak.

23.Af3,Dh3 xa; 24.Ah2.

Ikus koadroa. Maisuen jokaldia dator orain. Ez da erreza ikustea, konbinazio jokoa nagusituko delako hemendik aurrera. 24.....d5; 25.d5,Ae5; 26.De2,Zf5.

Matea (Zg3) mehatzatzen dute. Toki hau lortzeko peoi txuria saihestu beharra zegoen. Hortxe lehenengo jokaldiaren kokxa.

27.Gg1,Ah2; 28.Ag4.

Alfila salbatzeko azkeneko saiakera, baina beltzei zaldiaren joko arina gelditzen zaie.


28.....Ag1 xa; 29.Ah3,Zg3 xa; 30.Eg1,Ze2 xa; 31.Ef1,cZ-d4.

Abantaila argia azken txanpari begira.

32.d6,Gd8; 33.d7,Zf4; 34.Ge1,fZ-e2; 35.c3,Gf8 xa;

36.Eg2,Zf4 xa; 37.Eh1,dZ-e2; 38.b4,c-b4; 39.Ag4,Gd8; 40.a3,h5.

Txuriek etsi zuten, amaiera honi eutsi ezinean. ■



Lurraren Eguna ospatuko dute igande honetan Beran, herriko Gure Txokoa elkarteak antolatuta. Egun osoan zehar, Bortzirietako baserriar eta artisauak bilduko dira Alzate karrikan —eguraldiak laguntzen ez badu, berriz, pilotalekuan— euren produktuak erakusteko. Beratar guztientzat besta egun bihurtu den hau orain dela bederatzi urte antolatu zuten lehen aldiz.

Lurraren Eguna

JON ABRIL / IRUNEA

Azken bederatzi urteetan bezala, Lurraren Eguna ospatuko da Beran igande honetan Gure Txokoa elkarteak antolatuta. Ohiturari jarraiki, urriaren bukaera aldera Bortzirietako baserriar eta artisauen topaleku bihurtzen dira Berako karrikak. Lehen urtetik bertatik, beratar guztiek pozik hartu dute Lurraren Egunaren ospakizuna eta dagoeneko ezinbesteko jai egun bihurtu dute. Aurten ere, jende ugari biltzea espero dute antolatzaileek. Beti bezala, Alzateko kalea izanen da besta-gunea, eta eguraldiak laguntzen ez badu Alzateko pilotalekuan eginen da ekitaldia, azken urteotan bezala.

Lurraren Egunaren ardatz nagusia, euskal artisautzaren erakusketa eta salmenta da. Zurez, burniz, artilez zein bertzelako gaiez egindako mota guztietako eskulanak izaten dira bertan. Baina, horretaz landa, euskal kulturarekin eta ohiturekin zerikusia duten hainbat ekintza ere antolatzen dira. Horrela, goizean, Bortzirietako baserriarrek ardi-gazta lehiaketara ekarriko dituzte etxean egindako gaztak. Honekin batera, Berako baserrietan ekoizturiko barazki eta fruituak ikusgai egongo dira egun osoan zehar. Erakusketa honek hainbat jende erakartzen du, gauza oso bitxiak ikus daitez-



Artisau ugari izanen da Alzate karrikan.

keelako. Ohizko barazki, fruitu eta onddoek gain, adibidez, ikaragarri handiak ere izaten dira.

Bortzirietako produktuak leku berezia dute Lurraren Egunean. Bortzirietako baserriar guztiei, hain zuzen ere, gutun bana bidaltzen diete Gure Txokoako kideek Lurraren Egunean parte har dezaten. Baserri zein enpresa tti-

Alztate karrikan bilduko dira Bortzirietako baserriar eta artisauak euren produktuak erakutsi eta saltzeko asmoz.

kietan ekoizten diren ezti, aha-te-pate edota goxoak, bertzeak bertze, salgai egoten dira.

Bestalde, urtero bezala, dantza talde baten ikuskizunak alaituko ditu eguneko ekitaldi guzti hauek. Aurten Berako Gure Txokoa taldeari egokitu zaio zeregin hau betetzea, eta egun osoan zehar, beraz, Euskal He-

rriko txoko ezberdinetako dantzak eskainiko dituzte. Euskal kulturarekin zerikusia duten jai guztietan bezala, trikitalaririk ere ez da faltako Berako Lurraren Eguna honetan, ezta herriko Zizkuitz txaranga ere.

Goizeko lana bete eta gero, dantzari, musikari, artisau eta antolatzaile guztiek elkarrekin bazkalduko dute eta arratsalde partean berriro ere, bakoitzak bereari ekingo dio eguna amaitu bitartean. Goizeko ekintza guztiak bukatu ondoren, arratsaldean berriro ere bakoitza bere lanari lotuko zaio. Goizeko ekintzak ezezik, taloak, sagardoa eta gaztaina erreak ere izanen dira dastatzeko jai egun honetan. Izan ere, herriko ikastetxeetako haurrek ikasturte amaierako bidaia ordaintzeko arabiltzen dute egun honetan gaztaina erreak edo beste edozein gauza saltzen irabazitako dirua.

Ardi-gazta lehiaketaren sari banaketa eginen da arratsaldean, eta lehen hiru postuetan geldituko diren gazta-erdiak enkantean jarriko dira. Lehen saria jasotzen duenak pizten ohi du ikusminik handiena eta lehia bizia izaten ohi da gazta erdia eramateagatik. Eta bestari akabera ona emateko, azkeneko urteetan egitarauan egon ez den baina guztiz herri-tarturik eta erroturik dagoen dantzaldia berreskuratu dute aurten antolatzaileek. Iluntzean izanen da, Alzateko plazan.



Bortzirietako nekazariak jaitziko dira Berara.

Besta eguna beratarrentzat

E.E. / IRUNEA

Orain dela bederatzi urte ospatu zen Beran Lurraren Eguna lehen aldiz, 1987. urtean alegia, eta urtero-urtero, urriaren azken aldean, Bortzirietako biztanle guztien topaleku bihurtzen da. Bittori Telletxea Gure Txokoa elkarteko kideak argitu digu egun berezi honen jatorria: «Beran baserriko giroa erabat galdu zela ikusita bururatu zitzaigun Lurraren Eguna bezalako jai bat ospatzea, horren behar premia-sua ikusten baikenuen. Baserri ederrak baditugu Beran baina herriko giroa kale giroa da baserrikoa baino. Fabrikak baditugu, Ibardingo bentak ere hor dira eta horrek guztiak badu bere eragin nabarmena. Lesakan, adibidez, nahiz eta ondoan egon, baserriko

giroari eutsi diote eta hori berehala nabari da» esan digu Bittori Telletxeak.

Gure Txokoa elkarteak luzatutako deiak laster izan zuen erantzuna, eta lehen urtetik bertatik jai egun bihurtu zen Lurraren Eguna beratar guztientzat. Bittori Telletxeak aipatzen duenez, hala ere, badira oraindik urriko egun honetan herrira jaisuten ez diren baserriarrek: «Langile onak dira eta produktu onak egiten dituzte, baina ez dute Lurraren Egunean parte hartzen. Agian gure errua da, ez baikara denenganaino iritsi». Izan ere, baserriarrek izaten duten harremanak zerikusi handia du Gure Txokoako kidearen-ustez. «Beraiengana joan eta zuzenean gonbidatzen baditugu beti etortzen dira». Honela, badira urte-

ro-urtero, bakar bat ere faltatu gabe, Beran ospatu diren zortzi jai egun hauetan egon diren baserriarrek, bakoitza bere barazki, fruitu, ezti edo dena-delakoa-ekin.

Lurraren Eguneko ekitaldi guztiek jende andana erakartzen dute urtero baina bada guztien artean ikusmin berezia sortzen duen bat, ardi-gazta lehiaketa, alegia. Bittori Telletxeak dioenez, hala ere, «urte batetik bestera partehartzaile kopurua asko aldatzen da Lurraren Egunean. Iaz, adibidez, bost gaztagile baino ez ziren egon eta aurreko urtean, berriz, 22». Bere ustez, sari bakarra ematea izan da honen arrazoia. Hori dela eta, aurtengo ekitaldian, hiru sari banatuko dituzte, «gaztagile guztiak animatu daitezten».

«Ezaugarri magikoak ditu herri sendagintzak»

EDURNE ELIZONDO / IRUNEA

Ortzadar euskal folklore taldeak Folklore eta Kultura Tradizionalari Buruzko jardunaldiak hasiera eman zien atzo Nafarroako Museoa. Aurten goa hamaikagarren ekitaldia da eta antolatzaileek herri sendagintza aukeratu dute gaitzat. Atzo hasi eta bihar bukatuko diren jardunaldi hauetan, gai honi buruzko ikuspuntu ezberdinak aurkeztu eta jakinaraziko dituzte partehartzaile guztiek. Besteak beste, erita-

nuen asmoa da. Izan ere, orain dela hamaika urte lehenengoak prestatu genituenetik, urtero egin ditugu, urte bat bera ere hutsik egin gabe. Ortzadar taldeak bi jarduera zituen. Alde batetik, dantzan egin eta dantza hauen jatorria ikertu eta, bestetik, ikerketen bidez lortutako datuak jendaurrean azaltzeko asmoz jardunaldiak antolatu. Hasieran larunbatean egiten ziren, baina pixkanaka garatu eta egungo hiru egunekoak antolatzen hasi ginen. Urtetik urtera, gainera,


guztietako gaiak jorratu nahi ditugulako, batez ere. Ikerketa taldean ari garenon artean, bestalde, osasunaren munduan mugitzen garen asko bagara eta hori dela eta asko erakartzen gaituen gaia izan da. Herri sendagintza, gainera, antzina-ko pentsamoldearen ezaugarri magikoen oinordekoa da ere, neurri batean. Ezaugarri horietako askok, gainera, nahiz eta medio zientifikoen onespena ez jaso, zutik diraute oraindik. Nik ez dut uste magia inor sendatzeko gai denik,

ginen eta herri sendagintza izan zen horietako bat. 45 bat eritasun sendatzeko 250 bat sendabide aurkitu ditugu. Horietako gehienak, hain zuzen, azalaren gaixotasunak sendatzeko dira. Sendabide gehienek, halaber, belarrak erabiltzen dituzte, baina badira beste hainbat metodo magiko. Bartzuetan, adibidez, bareak edo barekulkuiak erabiltzen zituzten. Azken zazpi urteak eman ditugu ikertzen eta osotara 120 herri ingurura joan gara. Bertan, 300 bat laguni egin diegu elkarrizketa datuak biltzeko asmoz.

EGUNKARIA.—'Sukil' izeneko aldizkariaren lehen zenbakia argitaratu berri du Ortzadar

Karlos Irujo

IKERLEA



SOSLAIA

Erizain eta ikerlea

Ortzadar taldea orain dela hogeita bat urte sortu zen. Karlos Irujo, ordea, elkartek lehen hiru urteak bete zituenean sartu zen. Dantzari gisa hasi zen taldean, baina urteak aurrera joan ahala, «Ortzadar taldea beste zerbait gehiago ere bazela» konturatu zen Irujo. Honela, Ortzadar elkarteko ikerketa taldean sartu zen eta bertan eman ditu azken urteak. Irujok, hala ere, lan hori betetzea gero eta zailagoa dela aitortu du, «gaur egungo gazteek ez baitute parte hartu nahi. Ortzadarren sartzten diren gehienak dantzan egiteko sartzten dira, besterik gabe». Horretaz gain, lanak ere ikertzeko denbora anitz kentzen dio azaldu duenez. Karlos Irujo Nafarroako Ospitaleko erizaina da, orain dela hamahiru urte.

«Egungo medikuek ere onartzen dute gaixoak duen konfiantzak eragin handia duela sendakuntzan».

taldeak. Zer-nolako aldizkaria da?

IRUJO.—Kultura tradizionala hedatzea da gure helburu nagusia. Orain arte, folklore eta kultura tradizionalari buruzko jardunaldietan eta taldeak egindako lanak Etnografiako Koadernoetan biltzen genituen. Nafarroako Gobernuaren alaketarekin batera, ordea, Etnografiako Koadernoan zuzendaritzak jardunaldiak bertan ez argitaratzea erabaki zuen eta horren ordez, jardunaldiak eta gure lana bera gure kabuz argitaratzeko aukera eman zigun. Horrela sortu da, hain zuzen ere, 'Sukil' aldizkaria. Lehen zenbaki honetan, azken jardunaldietan jorratutako gaiak bildu ditugu, emakumeak herri kulturaren izan duen betebeharra, herri kirolak eta jokoak eta mito, errito eta siniskeriak, hain zuzen ere.



Ortzadar taldekoa da Karlos Irujo.

OSKAR MONTERO

sun eta sendabideek literaturan duten islada, Zangozako herri sendagintza edo ardoak sendabide moduan duen eragina dira jardunaldietan aztertuko diren gai batzuk. Ortzadar taldeko partaide den Karlos Irujok, halaber, Nafarroako herri sendagintzaren sendabideak izanen ditu bihar mintzagai. Gai honi eta, oro har, jardunaldiak buruz hitz egin dugu berekin.

EGUNKARIA.—Nola sortu zen folklore eta kultura tradizionalari buruzko jardunaldi hauek egiteko ideia?

KARLOS IRUJO.—Aspaldi ge-

partehartzaileen maila igo egin da.

EGUNKARIA.—Zer-nolako gaiak landu dituzue urte hauetan zehar?

IRUJO.—Hasieran, dantzen inguruko gaiak izan ziren gehien jorratu genituenak, baina beste hainbat ere aztertu ditugu, musika, musika tresnak, herri kultura, kultura tradizionalan emakumeak izan duen betebeharra, Sanferminak eta abar.

EGUNKARIA.—Aurten, herri sendagintzaren gaia aukeratu duzue. Zergatik?

IRUJO.—Folklore eta kultura tradizionalaren barruan mota

baina egungo medikuek ere aitortzen dute gaixoak sendagilearengan duen konfiantzak eragin handia duela sendakuntzean.

EGUNKARIA.—Nafarroako herri sendagintzaren sendabideei buruz mintzatu zara bihar jardunaldien barruan. Laburbilduz, zer errango duzu?

IRUJO.—Herri sendagintzari buruz Ortzadar taldeko ikerketa taldeak jaso dituen datuak azalduko ditut. Hasieran, ikertzen hasi ginean ez zen hori guk aukeratu genuen gaia, baina azterketak aurrera egin ahala, gai berriak ikertzen hasi

P A N E L U C R A N D O

MARK O'POLE TELEBIOLOGOAREN TXAPAK.



ZALDI EROA